



N - 5539
R - 1840

A.T.V.
1932

AITA GASPAR ASTETE-EN

CRISTIÑAU DOCTRINIA

D. GABRIEL MENENDEZ DE LUARCAG

gauza asco erantzita aterra ebana.



*Eta guero cerbaist gueyagolurie ta eusquerara
biyorlula.*

LAUDIYOCO ABADE JAUNEN

encarguz ta kostuz argitara urten ebana.

ETA ORAIN BIAR DIRIAN BAYEZCOACAZ IRUGARRENNEZ IMPRIMIDU DA



(Con licencia del Ordinario.)

BILBON:

DELMAS-en alargunaren seme nagosiyaren moldateguiyan.

1868 garren urtian.



SARTZAIYERIA.

Cristiñau siyel guztiyac
dagoz obligaduric
debociño artutera
euren biyotz guztiric,
JESUS guere arguiyaren
Curtze santuari :
Non il gura izan eban
gu ateretiarren
gueure pecatuaren,
ta areriyo gaistoaren
agwindupetaric.

Orregaitarren bada
ecandu biar zara
sarri ciñatutera
ta santiguetara
eguinie iru curtze :
Bicoquian bata,
Jaincoac libran gaizan
gogo deunguetaric :
bigarrena aoan,
Jaincoac librau gaizan
berba deunguetaric :
guero bularrian,
Jaincoac librau gaizan
obra-gogo charreric :

onelan esanic:
curtze santiaren †
señalia gaitic:
gueure † areriyocitaric
libradu gaguz
gueure Jauna. †
eta Jangoicoa.
Aitiaren, ta † Semiaren, ta
Espíritu Santuaren ucenian. Amen.

AITA GURIA.

Aita guria Ceruetan zagozana : santifica-
du bedi zure ucena : betor gugana zure
erreinua, egun bedi zure borondatia celan
Ceruan, alan Lurrian. Emon egniguzu gaur
gueure egunian eguniango oguiya : eta par-
catu eiguzuz gueure zorrac, guenc gnere
zordunai parquetan deutseguzan leguez : eta
ichi ez eiguzu tentaciñoan yausten : baya li-
bradu gaguzuz gacheric. Amen.

AVE MARIYA.

Ave Mariya, graciyaz betia, Jauna da zu-
gaz, bedeincatia zara zu andra guztiyen ar-

tian , ta bedeincatua da zure sabeleco frutua,
Jesús. Santa Mariya, Jangoicoaren Ama, erre-
gutu eguiuzu gu pecatariyoc gaitic , orain ta
gure eriyotzaco orduan. Amen.

CREDOA.

Sinistuten dot Jangoico Aita guztiz poderoso, Cernaren eta Iurraren Criyadorigan ; eta bere Seine bacar JESU-CRISTO gueure Jaungan , cein zortuzan Espiritu Santuaren obrazta graciayaz; yayo zan MARIYA Virginia ganic : padecidu eban Poncio Pilatosen poderiaren bēian ; izan zan curtzificadua , ila ta sepultadua ; yatzi zan infernuetara , aric iru garren egunian erresucitadu zan ilen arteric; igon eban Ceruetara , an dago yarriric Aita Jangoico guztiz poderosoaren alde escoan; aric etorricoda biciyac eta ilac juzguetan. Sinistuten dot Espiritu Santuagan , Elessa Santa Catoliquia , Santuen comuniñioia , pecatuten parcaciñioia , araguiyaren erresurreysiøia, eta seculako bicitzia. Amen.

SALVIA.

Salve Erreguiña, ta Ama misericordiazcoa,

bicitzia, ta dulzuria, Salve esperanza gueuria; Zuri deiyez gagoz Evaren ume desterraduoc; Zugana gagoz cizpuruca, llantu ta negar eguiten dogula negarrezco erri onetan. Ea bada Abogada gueuria, biyortu eguiuz gugana zure misericordiyazco beguiyoc; ta desterru au igaro azquero, eracuscuzu JESUS, ceurre sabeleco frutu bedeincatua. ¡ O Clemenciazco Ama ! ¡ O Piadosia ! ¡ O Dulce Virginia MARIYA ! Erregutu eguizu gu gaitic Jangoicoaren Ama Santia, merecidu daigun alcancetia JESU Cristoren promesac. Amen JESUS.

*Jangoicoaren Legueco Mandomentuac dira amar:
lelengo irurac pertenecietan yacaz Jangoicoaren onriari : eta beste zazpirac programuaren probechuari.*

Lelengoa, Jangoicoa ametia gauza guztiyen ganian.

Bigarrena, bere uoen santuagaz juramentu alperric ez eguitia.

Irugarrena, Domecac ta Jayae gordetia.

Laugarrena, Aita, ta Ama onretia.

Bostgarrena, iñor il ez eitia.

Seigarrena, araguizco pecaturic ez eguitia.

Zazpigarrena, iñori ecer ostu ez eitia.

Zortzigarrena, iñori falso testimonioric ez ereguitia, ta ez guzurric esatia.

Bederatzigarrena, progimuaaren senar emazteric ez desietia.

Amargarrena iñoen ondasun bidebagacoric ez gura izatia.

Amar Mandamentu oneec sartuten dira bitan, Jangoicoa aman ta serbitian gauza guztiyac baño gueiyagoe, ta progimua gueure burua leguez. Amen.

Fedeco Articuluac dira amalau: lelengo zazpirae dira Jangoicotatasunaren ganian, ta beste zazpirae JESU Cristo gueure Jaun, Jangoico, ta guizon eguiyascoaren guizon-tasun santuaren ganian.

Jangoicotatasunaren ganeacoac dira oneec.

Lelengoa, sinistu Jangoico guztiz poderoso bacar bategan.

Bigarrena, sinistu dala Aitia.

Irungarrena, sinistu dala Semia.

Laugarrena, sinistu dala Espiritu Santua.

Bostgarrena, sinistu dala Cryadoria.

Seigarrena, sinistu dala Salvadoria.

Zazpigarrena, sinistu dala Glorificadoria.

Guizontasunaren gan coac dira oneec.

Lelengoa, sinistu Jesu Cristo gueure Jauna, guizona dan partez, sortua izan zala Espiritu Santuaren obraz, ta graciyaz.

Bigarrena, sinistu yayo zala Mariya Virginia ganic, Señora au doncella zala, Semia yayo baño lenago, yayoqueran, eta yayo azquero.

Irugarrena, sinistu artu ebala eriyotzia, ta pasiñioia gu pecatariyoc salbetarren.

Langarrena, sinistu yatzi zala infernuetara, eta atera cituzala bere etorrera santuaren beguiregozan Guraso Santuen arimac.

Bostgarrena, sinistu irugarren egunian biztu zala ilen arteric.

Scigarrena, sinistu igor ebala Ceruetara, eta an dagoala yarriric Aita Jangoico guztiz poderosoaren escoatati.

Zazpigarrena, sinistu aric etorrico dala biciyac, eta ilac juzguetan; onai emoitako gloriya, bere mandamentu santuak gorde cituezalaco; eta deungai betiko infernua, gorde etzituezalaco.



CRISTIÑAU DOCTRINIAREN
ESPLIGACIÑOIA ITANDU, TA ERANZUTEN DALA.

Itanduten dot, Cristiñaua zara ?
Eranzuten dot. Bai Jauna , Jangoicoaren
graciya gaitic.

- I. Cristiñauaren ucen ori noganic yatorzu?
- E. Cristo gueure Jauna ganic.
- I. Cer san gura dau Cristiñauc?
- E. Cristoren guizonea.
- I. Eta cer esan gura dau Cristoren guizonac?
- E. Guizonea bat, ceinec daucan Jesu Cristoren fedia, Bantismu Santuan artu ebana, eta cein dagoan bera serbiyetaco opaturic.
- I. Cein da Cristiñauaren señalia?
- E. Curtze Santua.
- I. Cegaitic?
- E. Dalako Cristo curtzificaduaren irudiya, ceinetan erredimido guenduzan.

I. Ceinbat modutan eguiten dau Cristiñauac señale ori?

E. Bitan.

I. Ceinzuc dira?

E. Ciñatntia, ta santignetia.

I. Cer da ciñatutia?

E. Da eguitia iru curtze escu escoaco orcroagaz; lelengoa becoquian, bigarrena aoan, irugarrena bularrian, gueure Jangoicoagaz berba eguiten dogula.

I. Eracutsi celan?

E. Curtze santiaren † señalia gaitic, gueure † areriyoetaric, libradu gaguizuz † gueure Jauna, ta Jangoicoa.

I. Cegaitic ciñatuten zara becoquian?

E. Jangoicoac libradu gaguizanzat pensamentu deunguetaric.

I. Cegaitic aoan?

E. Jangoicoac libradu gaguizanzat berba deunguetaric.

I. Cegaitic bularrian?

E. Jangoicoac libradu gaguizanzat obra, ta desco deunguetaric.

I. Cer da santignetia?

E. Da eguitia curtze bat escu escoaco atz biyacaz, becoquiric bularrera, ta ezquerreco sorbaldaric escoacora, ucentetan dogula Trinidad guztiz santua.

I. Eracutsi celan?

E. Aitiaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren uacenian. Amen.

I. Nos eguin biar dozu señale ori?

E. Obra onen bat asten dogun guztiyan, edo tentaciñoren baten, necesidade, edo peligroren baten aurquituten garianian: baita bere, oeric yaiguitorduan, etseric urteitorduan, Eleasan sartutorduan, yaten asitorduan, eta oera yoatorduan.

I. Cegaitic orrenbeste bider?

E. Cegaitic dempora, eta leeu guztiyetan tentau, eta perseguietan gaituezan gueure areriyoac.

I. Ce areriyo dira orreec?

E. Demonioa, Mundua, ta Araguia.

I. Bada curtziac bauco orreen contra indar-ric?

E. Bai Jauna.

I. Nondi dauco curtziac indar ori?

E. Cristoc berian bere eriyotziagaz bendeci-
du cituzalaco.

I. Curtzia adoretan dozunian celan csaten
dozu?

E. Adoretan zaituguz, Cristo, eta bedein-
quetan zaituguz, ceure curtze santuagaz erre-
dimidu cendulaco mundua.

CRISTIÑAUAC YAQUIN BIAR DITUZAN GAUZAC.

Ecusi dogu Cristiñaua zariana, Cristiñaua-

ren uconeti, ta señaleti : Esan eguidazu orain.

I. Ceinbat gauza yaquin, ta entendidu biar-dituz Cristiñauc uso errazoezcora elzaiten danielian?

E. Lan gauza.

I. Ceinzuc dira?

E. Lelengoia yaquitia cer sinistuko daben : bigarrena cer escatuco daben; irugarrena cer eguiñ, edo obrauco daben; eta laugarrena cer artu, edo errecibiduco daben.

I. Celan yaquingo dau cer sinistuko daben?

E. Yaquinic, eta entendiduric Credoia, edo articulu fedecoac.

I. Celan yaquingo dau cer escatuco daben?

E. Yaquinic, eta entendiduric Aita guria, eta beste Elessa Ama Santiaaren oraciñoac.

I. Celan yaquingo dau cer obrauco daben?

E. Yaquinic; eta entendiduric Jangoicoaren legueco amar Mandamentuac, bost Elessacoac, eta Obra misericordiyazcoa.

I. Celan yaquingo deu cer errecibiduco daben?

E. Yaquinic eta entendiduric zazpi Sacramentuac.

CRISTIÑAU DOCTRINIAREN

*Lelengo partia, ceinetan espliquetan dirian Credoia
eta Articulu Fedezone.*

I. Noc esan eban Credoia ?

E. Apostoliac.

I. Cetaraco?

E. Guri fede santuco gauzac iracasteco.

I. Eta zuc cetaraco esaten dozu?

E. Cristiñauoc daucagun fedi-au confesetaco?

I. Cer da fedia?

E. Ecusi eztoguna sinistutia.

I. Ecusi cendun zuc yayoten JESU Cristo?

E. Ez Jauna.

I. Ecusi cendun ilten, edo Cerura igoiten?

E. Ez Jauna.

I. Eta sinistuten dozu?

E. Bai, Jauna, sinistuten dot.

I. Cegaitic sinistuten dozu?

E. Jangoicoac alan aguertu deutsalaco Elesa Ama Santiari, ta onec alan iracasten deuzculaco.

Ce gauza dira, Cristiñaua leguez, daucazuzanac, eta sinistuten dozuzanac?

E. Erromaco Elessa Ama Santiac daucazan, ta sinistuten dituzanac.

I. Ta cerzuc dira orreec?

E. Fedeco Articuluac, Credoan dagozan leguez.

I. Ce gauza dira Fedeco Articuluac?

E. Dira Fedeco misteriyoetarie principale-nac.

I. Cetaraco dira Fedeco Articuluac?

E. Emoiteco ezauera arguiyago bat gueure

Jangoicoarena, eta JESU Cristo gueure Erredentoriarenaren.

I. Nor da gure Jangoicoa?

E. Da gauza bat esan eta pensan al leite-quianic andiyena ta miragarriyena: Jaun bat ecin gueiyagoan ona, poderosoa, sabiyoa, justoa, gauza guztiyen principiyoa, eta acabua.

I. Trinidadeguztiz Santua nor da?

E. Da Jangoicoa bera, Aitia, Semia eta Espiritu Santua, iru persona distinta, eta Jangoico eguiyazco bacar bat.

I. Aitia Jangoicoa da?

E. Bai Jauna.

I. Semia Jangoicoa da?

E. Bai Jauna.

I. Espiritu Santua Jangoicoa da?

E. Bai Jauna.

I. Iru Jangoico dira?

E. Ez Jauna ezpada Jangoico eguiyazco bacar bat.

I. Aita semia da?

E. Ez Jauna.

I. Espiritu Santua da Aita edo Semia?

E. Ez Jauna.

I. Cegaitic?

E. Dirialaco personac bata bestia eztirianac, izan arren Jangoico eguiyazco bacar bat.

I. Orlan ceinbat izaitetxe edo naturaleza, entendimenta eta borondate dauco Jangoicoac?

E. Naturaleza bacar bat, entendimentu bat,
eta borondate bat.

I. Eta ceinbat persona?

E. Iru distinta, ceinzue dirian Aitia, Semia, eta Espiritu Santua.

I. Celan da Jangoicoa guztiz poderosoa?

E. Bere gura izanagaz bacarric eguiten dabelaco gura daben guztiya.

I. Celan da Criyadoria?

E. Gauza guztiyac eguin cituzalaco ecebere eceric.

I. Eta ceu ceteraco eguin cinduzan Jangoicoac?

E. Bera bicitza onetan ametaco, ta serbiyetcaco, eta guero gloriyan betico gozetaco.

I. Celan da Salbadoria?

E. Graciya emoitzen dabelaco, eta pecatuac pareatuten dituzalaco.

I. Celan da glorificadoria?

E. Gloriya emoitzen deutzialaco bere graciyan ilten danari.

I. Bauco Jangoicoac, guc leguez, gorputzic?

E. Jangoico dan partez, ez Jauna, dalaco espiritu purua; baya bai guizon dan partez.

I. Iru personetaric cein eguin zan guizon?

E. Bigarrena, cein dan Semia.

I. Aitia eguin zan guizon?

E. Ez Jauna.

I. Espiritu Santua eguin zan guizon?

E. Ez Juana.

I. Cein bada?

E. Bacarric Semia, ceineri, guizon egun azquero, derecho JESU Cristo.

I. Orlan, bada, nor da JESU Cristo?

E. Da Jangoico biciyaren Semia, guizon egun zana, gu errendimiyetarren, eta guri celan bici eracustiarren.

I. Eta ceinbaat izaita, edo naturaleza, entendimentu, eta borondate dauco JESU Cristoc?

E. Naturaleza bi, bata Jangoico dan partez, eta bestia guizon dan partez: entendimentu bi, Jangoico dan partez bata, eta guizon dan partez bestia: eta borondate bi, bata Jangoico dan partez, eta bestia guizon dan partez.

I. Eta ceinbat persona eta memoriya dauco?

E. Persona Jangoicozko bat bacarric, cein dan Trinidade guztiz santuco bigarren persona; eta memoriya bat bacarric guizon dan partez, bada Jangoico dan partez eztau biar memoriyaric, gauza guztiyac bere aurrian daucazalaco.

I. Cer esan gurada JESUSRC?

E. Salvadoria.

I. Cetaric salban guiduzan?

E. Gueurre pecatuetaric, eta Diabruaren catibériyoric.

I. Cer esan gura dau Cristoc?

E. Ungidua.

- I. Cegaz izan zan ungidua?
- E. Espiritu Santuaren graciayaz, eta doezi.
- I. Cristo gueure Jauna celan sortu zan, eta celan yayo zan Doncella zan, Ama ganic?
- E. Jangoicoac ori milagroz eguiten ebala.
- I. Ce misteriyo da ori?
- E. Encarnaciñoco misteriyoa.
- I. Cer sinistnen dozu encarnaciñoco misteriyoan?
- E. Trinidad guztiz Santuco bigarren personia, cein dan Semia, guizon egun zala Ama Virginianaren errai guztiz garbiyetan; ez guizonearen obraz, ezpaba Espiritu Santuaren birtutez, bere doncellatasunaren calte baga.
- I. Ceinbat gauza obrau cituzan, bada, Espiritu Santuac Encarnaciñoco Misteriyoan?
- E. Lau gauza.
- I. Ceinzue dira?
- E. Lelengoa, formau eban gorputz bat Ama Virginianaren Sabel santuan bereodol guztiz garbiyagaz. Bigarrena, eriyadu eban Arima bat ecebere eceric. Irugarrena, gorputza, ta arimia batu cituzan alcarregaz. Laugarrena Trinidad guztiz santuco bigarren personiac beragan artu, ta beragez batu cituzan gorputz, ta arima oneec; eta alan, leen Jangoico baño etzana, Jangoico izaltia galdu baga, gueratu zan guizon egunie; ceinari derecho JESÚS Cristo.
- I. Eta celan yayo zan milagroz?

E. Urteiten ebala Mariya Santismaren Sableric, bere doneellatasunaren calte bagaric, eguzquiyaren arguiyac cristal bateti urteiten daben leguez, cristala urratu, ta loitu bagaric.

I. Bere Ama guero betidonecella bici izanzan?

E. Bai, Jauna, beti.

I. Cegaitic Curtzian il gura izan eban?

E. Gu libretarren pecaturic, eta betico eriyotzaric.

I. Celan, bada, yauzi quintzan betico eriyotza orretan?

E. Pecatu eguiten ebala Adan gure lelengo gurasoac, ceinegan gntziyoc eguin guendun pecatu.

I. Bauco Cristoe Aitaric, edo Amaric?

E. Jangoico dan partez dauco Aita, cein dan Aita eternoia, eta cztauco Amarie; eta guizon dan partez dauco Ama, cein dan Ama Virginia, eta cztauco Aitaric.

I. Eta nosie onacoa da JESU Cristo?

E. Jangoico dan partez beti beticoa Aita Eternoa, ta Espiritu Santua leguez; bayo guizonek dan partez Ama Virginianaren Sabel santuan sortu zanic onacoa.

I. Cer derechazu dala á Infernua, ceinetara yatzi zan, il azquero, Cristo gueure Jauna?

I. Ez condenadnen lecua, ezpada justoac egozan Linboa.

I. Bada, bago infernubat baño gueiyago?

E. Bai Jauna, lau dagoz luraren biyotzian; eta dereche condenaduen Infernua, Purgatorioya, seiñen Linboa, eta Justuen Linboa, edo Abrahanen Senoa.

I. Eta cer dira orrece?

E. Condenaduen Infernua da lecu bat, ceinetara yoaten dirian pecatu mortalian ilten dirianac, an tormentu, ta pena artian betico agoteco: Purgatoryoa da lecu bat, ceinetara yoaten dirian graciyan ilten dirianen arimac, baya pagau baga guztiz curen peccatuen zorra, ann pena icaragarriyacaz garbituac izaiteco: Seiñen Linboa da lecu bat, ceinetara yoaten dirian, uso errazoescora eldu baño leenago, batiatu bagaric ilten dirianen arimac, an beti egoteco Jangoicoa egunio ecusi bagaric: Eta Justuena, edo Abrahanen Senoa da lecu bat, ceinetara yoaten cirian, Jesu Cristoc gu erre-dimidu baño leenago, graciyan ilten cirianen arimac, guztiz garbituta egozanac: eta lecu berbera, ceinetara benetan yatzizan Jesu Cristo.

I. Celan yatzi zan?

E. Yatzi zan bere arimia, Jangoicotatasunagaz baturic.

I. Eta bere gorputza celan gueratu zan?

E. Baturic Jangoicotasun beragaz.

I. Celan biztu zan irugarren egunian?

E. Batutén ciriala barriro bere gorputz, ta arima gloriyaz betia, ostera iños il ezeiteco.

I. Ceinbat garren egunian igo eban Céruevara ?

E. Berroguei garren egunian.

I. Ce modutan ?

E. Bere poderiyoz, ta birtntez.

I. Cer esan gura dau yarriric egoitiac Aita Jangoico guztiz poderosoaren alde escoan ?

E. Jesu Cristoc Jangoico dan partez daucala gloriya bardina Aitiagaz, ta Espiritu Santuagaz; eta guizon dan partez beste guztiyac baño guciyago.

I. Nos etorrico da biciyac, eta ilac juzguetan ?

E. Munduaren acabuan.

I. Eta orduan biztuco dira il guztiyac ?

E. Bai Jauna, leen cituezan gorpuzt, ta arima eurecaz.

I. Eta Munduaren acabua baño leenago juzgaduac izango gara ?

E. Bai Jauna, guztiyac ilten dirianian juzgadu, ta sentenciaduco dituz Jangoicoac: onac Ceruco gloriya gozetara, eta deungae betico penac padeciyetara Infernuan.

I. Nor da Espiritu Santua ?

E. Trinidade guztiz Santuco irugaren Personia; Aitia ta Semia leguez Jangoico egwiyazcoa dana.

I. Cer sinistuten dozu esaten dozunian: sinistuten dot Sautuen comuniñoa ?

E. Cristiñau fielac danquiela parte batac bestien obra onetan, gorputz baten zatiyac leguez, cein dan Elessia.

I. Cer da Elessia?

E. Da cristiñau fiel guztiyac batera eguiten daudeen, gorputza, ceinen burua dan Aita Santua.

I. Nor da Aita Santua?

E. Da Sumo Pontifice Errromacoa, Cristoren Vicariyo, edo ordeco mundu onetan, coineri guztiyoc obediu biar deutsagun.

I. Cer esan gura dau pecatuen parcaciñoac?

E. Elessa Santan dagózala pecatiuac parquetaco mediyoac, ceinzuc dirian Sacramento Santuac.

I. Cer esan gura dau araguiyaren erresursoiñiac?

E. Judiciyoco egunian guztiyoc biztico garrisala orain dancaguzan gorputz, ta arima eurecaz: artzaiteco bacochac merecietan dabean aloguera, edo castigua.

I. Cer esan gura dan seculaeo bicitziac?

E. Bicitzau acabañ azquero, izango dala beste betico bat, edo iños acabañco eztana; ceintan egongo dirian, Jangoicoa Jangoico dan arte guztiyan, onac Ceruan gloriya gocetan, eta deungac Infernuan pena icaragarriyac padecietan.

I. Credoa, ta Fedeco Articuluez ganeti bes-

te gauzaric sinistuten dozu?

E. Bai Jauna, Escritura Santan dagoana, eta Jangoicoac bere Elessiari aguertu deutsan guztiya.

I. Ce gauza dira orreec?

E. Ez ori itandu niri. nasalaco y aquituriya bagacua: Doctoriac dituz Elessa Ama Santiac erantzuten y aquingo daudeenac.

M. Ondo diñozu: bada Doctoriai yagoque, ta ez zuri, gure fede santuco gauza guztiyen contu emoitia: znretzaco asco da Articuluena, Credoan dagozan leguez, emoitia.

*Cristiñau Doctriniaren bigarren partia ceinetan
espliqu tan dan cer escatu biar dan; eta
Elessa Ama Santiaren oraciñoac.*

Ecusi dogu celan daquizun cer sinistu biar dozun, cein dan lelengoa: gatozan bigarrenerima, cein dan cer escatu biar dan yaquitia.

Esan eguidazu.

I. Noc esan eban Aita guria?

E. JESU Cristoc.

I. Ceteraco?

E. Guri oraciño eguiten iracasteco.

I. Cer da oraciño eguitia?

E. Da Jangoicoagana biyotza creguitia, ta berari mesediac escatutia.

I. Ceinbat modutacoa da oraciñoa?

E. Bitacoa.

I. Ceintzuedira?

E. Gogoagazcoa, edo mentala; eta aoagazcoa, edo bocala.

I. Cer da oraciño mentala?

E. Da arinaco sensun, edo potenciyacaz eguiten dana: memoriyagaz gogora gauza onen bat ecarten dogula: entendimentuegaz gogoan gauza ori darabilgula, ta bere ganian pensetan dogula: eta borondatiagaz afectoac, eta deseo santuen frutu onac ateraten doguzala: contu daigun, pecatuen gorrotoa, humiltasuna etc. edo gogo onen batzuc artzaiten doguzala, celangoacdirian, ondo confesetaco, bizitzia obatuteco, edo besteren batzue.

I. Cer da oraciño bocala?

E. De berbacaz eguiten dana, celangoa dan eguiten doguma Aita guria esaten dogunian.

I. Eta celan eguin biar da oraciño?

E. Atenciñoagaz, humildadiagaz, consciagiagaz, eta perseberanciyagaz.

I. Aita guria esaten dozunian nogaz berba eguiten dozu?

E. Gueure Jaun. eta Jangoicoagaz

I. Non dago gure Jangoicoa?

E. Lecu guztiyetan, especialmente Ceruan, eta Santisimo Sacramento Altaracoan.

I. Eta JESU Cristo non dago?

E. Jangoico dan partez lecu guztiyetan, eta
guizom dan partez bacarric dago Ceruan eta
Santissimo Sacramento Altaracoan.

I. Cein da oraciño en artian onena?

E. Aita guria.

I. Cegaitie?

E. Cristoc bere aotic-esan ebalaco. Aposto-
luac escatu ta.

I. Cegaitie gueiyago?

E. Dancazalaco zazpi escari caridadeti dato-
zanac.

I. Ceintzuc dira?

E. Lelengoa da santificeadu bedi zure ucena.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Jangoicoaren ucena izan dila ezagutua,
eta onradua mundu guztiyan.

I. Cein da bigarrena?

E. Betor gugana zure erreinua.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Erreinau daiyala Jangoicoac gure arime-
tan emen Inrrian graciyaz, eta guero emon
daigula gloriya.

I. Cein da irugarrena?

E. Eguin bedi zure borondatia celan Ceruan
alan lurrian.

I. Cer escututen dozu escari orretan?

E. Eguin daigula Jangoicoaren borondatia
lurrian gagozanoc, Ceruan dagozanac eguiten
daudeen leguez.

I. Cein da langarrena?

E. Emon egunguzu gaur gueure egunian eguniango oguiya.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Emon daigula Jangoicoac gorputzeraco mantenimentua, eta arimarako graciya, ta Sacramentua.

I. Cein da bostgarrena?

E. Pareatu egunguzn gueure zorrac, gueuc gueurezordunai parquetan dentseguzan leguez.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Jangoicoac pareatu deiguzala gueure pecatuac, gueuc pareatu deutsegün leguez gach egnin deuscnenai.

I. Cein da seigarrena?

E. Ichi ez eignu tentaciñoan yausten.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Jangoicoac ezteigula ichi yansten, ez consentietan pensamentu, ta tentaciño deunguetan, ceintzuaz Demoniñoac pecatuan yausi eragrin gura deuscnun.

I. Cein da zazpigarrena?

E. Baya libradu gaguizn gacheric.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Jangoicoac libradu gaizala arimako ta gorputzeo gach, eta peligru guztiyetarie.

I. Cegaitie diñozu asquieran, *Aita guria Oeruelan zagozana?*

E. Jangoicoagana biyotza ereguiteco, ta es-

catuteco mesediac humildadiagaz, ta confianziagaz.

I. Cer esan gnra dau acabuan esaten dozun, berbiac: Amen?

E. Alan izan deila.

I. Ceintzue dira Ama Virginiori esaten deutsa zuzan oraciñoric onenac?

E. Ave Mariya, eta Salvia.

I. Noe esan evan Ave Mariya?

E. Angueru San Gabrielec Ama Virginiori barri onac emoitera etorri zanian.

I. Noc esan eban Salvia?

E. Elessa Ama Santiac dauco beretzaco zartuta.

I. Cetaraco?

E. Ama Virginiori mesediac escatuteco.

I. Ave Mariya, edo Salvia esaten dosunian nogaz berba eguniten dozu?

E. Ama Virginiori.

I. Nor da Ama Virginia?

E. Da Señora bat birturtez, eta graciayaz beta, Jaungoicoaren Ama, eta ceruan dagoana.

I. Eta Altaran dagoana nor da?

E. Da Ceruan dagoanaren imagina, eta irudi bat.

I. Cetaraco dago an?

E. Guri acordarazoteco Ceruan dagoana, eta bere imaginia dalaco erreberenciya egun daiyogunzat.

M. Bada beste ainbeste eguin biar deutsezu beste Santuen imaginai eta gorpu-zatiyai bere.

I. Eguin biar deutsegu oraciño Angueruai, eta Santuai bere?

E. Bai Jauna, gueure bitertecoa leguez.

I. Ce gauza dira Angueruac?

E. Dira, Cernuan Jangoicoa gocetan dagozan Espiritu zoriyoneko batzue.

I. Cetaraco egnin cituzan Jangoicoac?

E. Bera beti alabadu, ta bedeincatu dagui-yonzat.

I. Ceteraco gueiyago?

E. Bere Ministroac leguez Elessia gobernetaco, eta guizonac yagoteco.

I. Orlan zue bero baucazu zure Angueru guardacoa?

E. Bai Jauna, baucat, eta bacochac dause beria.

M. Bada artu eguiyozu debociño andibat, eta egnian encomendau zaquiyoz.

*Irugarren Partia, ceinetau espliquetan dan
cer eguin, edo obraubiar dan.*

Ecusi dogu celan daquizun cer sinistu, ta cer escatu biar dozun: dacusgun orain celan daquizun cer obrau biar dozun.

I. Esan eguiyu: cein da Jangoicoaren le-

gueco lelengo mandamentua?

E. Jangoicoa ametia gauza guztiyen ganian.

I. Noc ametan dan Jangoicoa?

E. Bere mandamentuac gordetan dituzanac.

I. Cer da Jangoicoa ametia gauza guztiyen ganian?

E. Gurago izaitia gauza guztiyac galdu, bera ofendidu baño.

I. Cetara gueiyago obliguetan gaituz mandamentu onec?

E. Bera bacarric adoretara gorputzeco ta arimaco erreberenciya guztiyagaz, beragan sinistu, ta esperetan dogula fede biciyagaz.

I. Noc eguiten dau pecatu onen contra?

E. Idoloo, edo Jangoicoo falseoac adoretan, edo sinistuten dituzanac; fediareen contraco gauzaren bat sinistuten dabenac; edo fedeco misteriyo santuren baten dudetan dabenac; edo doctrinia biar dan leguez eztaquianac; Fedeco, esperanzaco, ta Caridadeco actoac, eguin biar dirianetan eguiten estituzanac; Jangoicoagan biar dan asperanzia galtzaiten dabenac; edo Sacramenturen bat disposicioñe charragaz artzaiten dabenac.

I. Noc gueiyago?

E. Aztuen contuac, ta barri emonac sinistuten dituzanac; eta sorguinqueriyac, edo beste onelango bide bagaco gauzaren batzueguiten dituzanac.

I. Cein da bigarrena?

E. Bere ucen santuagaz juramentu alperric ez eguitia.

I. Noc eguiten dan juramentu alperric?

E. Juramentu eguiten dabenac eguiya bagaric, justiciya bagaric, eta necesidate bagaric.

I. Cer da juramentu eguiya bagaric eguitia?

E. Da juramentu eguitia guzurragaz, edo batec uste dabaren contra.

I. Eta ce pecatu da juramentu eguiya bagaric, edo dudiagaz eguitia?

E. Pecatu mortala, Janna, juramentua gauza chiquer batu ganian bada bere.

I. Eta iñori on eguitarren, edo iñoc erregututa, egin lei, guzurragaz juramentu?

E. Ez da mundu giztiya gaitic bere.

I. Cer da juramentu justiciya bagaric eguitia?

E. Da juramentu eguitia gauza gaisto, edo charren bat eguingo dala, centu daigun, progiunari gachen bat eguingo dentsala.

I. Eta ce pecatu da justiciya bagaric juramentu eguitia?

E. Pecatu mortala, gauza charra pisuzcoa bada; eta arina bada, pecatu veniala.

I. Cer da juramentu necesidate bagaric eguitia?

E. Da juramentu eguitia egin biar andi bagaric, edo ecerezquerriyac gaitic.

I. Eta ce pecatu da ori?

E. Pecatu beniala, saltau ez azquero jura-
mentuaren eguiyac, ez justiciyac.

I. Eta gauza onen bat eguiteco juramentu,
voto, edo promesa deucanac cunplidu biar
dau?

E. Bai Jauna; eta ez cunpliyetia, edo lar lu-
zatutia da pecatu mortala, gauza pisuzcoaren
ganian izan azquero.

I. Eta pecatu da criyaturac gaitie juramentu
alperrie eguitia?

E. Bai, Jauna, euretan euren criyadoriari ju-
ramentu eguiten yacolaco.

I. Co modutan eguiten da juramentu Criya-
turac gaitic?

E. Esaten dala, contu daigun, neure ari-
mia gaitic, Cerua gaitic, lurra gaitic etc. au
alan da.

I. Ce erromediyo dago juramentu alperrie ez
eguiteco?

E. Artutia usua esateco bai, edo ez, Cristoc
iracasten deuscon leguez.

I. Eta mandamentu onetan eragozten da bes-
te gauzaren bat gueiyago?

E. Bai, Jauna, eragozten da blasfemia bere,
cein eztan besteric, ezpabere berba lotsabaco-
ren batzue Jangoicoaren, edo bere Santuen
contra esafia; eta da pecatu mortala.

I. Cein da irugarrena?

E. Domecac eta Jayac gordetia.

I. Noc gordetan dituz Jaiyac?

E. Meza osoa enzun, eta bearric eguiten ezdabenac necesidade baga euretan.

I. Eta ce pecatu da Jai egunetan necesidade bagaric biar eguitia?

E. Pecatu mortala, ordu biz gora eguiten bida; eta acz biera bida, pecatu beniala gueiyen partez.

I. Cein da laugarrena?

E. Aita, eta Ama onretia.

I. Noe onretan dituz gurasoac?

E. Obedecidu, socorridu, eta erreberenciye tan dituzzanae.

I. Noe eguitandan onen contra pecatu mortala?

E. Etzeco gobernuco, eta aciyera oneco gau zetan gurasoen esanic egunin gura eztaudeen humiae: euren necesidadetan socorridu, edo lagnudu gura ezteutseenac; birao, barre, edo burla eguiten dentseenac; escua eranci, edo cenuatuen dituezanac; eta euren conseju, ta bayezoa bagaric escontzaraco bidiac artzaiten dituezanac.

I. Nortzuc besteric sartzaiten dira gurasoen uenian?

E. Nagusiyagoac edadian, dignidadian, eta gobernuau.

I. Eta mandamentu onetan sartzaiten dira

humiac euren gurasoen alderaco danquiezan obligaciñoa baño gueiyago?

E. Bai, Jauna, nagusiyagoac euren azpicoen alderaco, eta gurasoae euren lumien alderaco dauqueezanac bere.

I. Eta ceintzue dira orreec?

E. Emoitia yan edana, doctrina oua, egenplu ona, eta bere denporan ondo yagoquen estadua.

I. Eta ce pecatu da orrectan faltetia?

E. Gueyen partez, pecatu mortala.

I. Cein da bostgarrena?

E. Iñor il ez eitia.

I. Cer aguinduten da mandamentu onetan?

E. Ez iñori gachic eguitia, ez obraz, ez berbaz, ezta desioz bere.

I. Noc eguiten dau pecatu mortala mandamentu onen contra?

E. Bere buruari, edo progimuari eriyotzia, edo beste gach andiren bat deseetan deutsenac, edo gorroto deutsenac; edonorbereil, eridu, edo manatutzen dabenac; ordituten danac; osasunian gach andiya eguingo deutseen ganzae yaten dituzanac; bere burua il, edo ilteco peligruan iminten dabenac; eta norberari, edo besteri birao egniten deutsenac.

I. Cer da birao eguitia?

E. Da batec, edo norberen buruentzaco, edo besterentzaco gachen bat escatutia.

I. Eta ce pecatu dau birao eguitia?

E. Pecatu mortala, Jauna, gach andiren desioagaz eguiten bada; eta alango desio bagaric bada, pecatu beniala, beti ez arren.

I. Nortzue, bada, eguitendaudee pecatu mortala alango desio bagaco biraoacaz?

E. Guéiyen partez gurasoac, eta nagusiyanac, euren azpicoen aurrian birao eguiten dandoenac; eta birao eguiteco ecandua dauquienac, echiteco aleguinac eguiten ezpadituez.

I. Eta cegaitic ori?

E. Cegaitic euren esate, ta egenplu deungacaz emoitzen dentseen bestiai Jangoicoa ofendiyetako bidia, ceincri derechon escandalua.

I. Cein da seigarrena?

E. Araguizco pecaturic ez eguitia.

I. Cer aguinduten da mandamentu onetan?

E. Izan gaitezala castoac, eta garbiyac pensamentuetan, berbetan, eta obretan.

I. Noc eguiten dau pecatu mortala mandamentu onen contra?

E. Ezauquera osoagaz pensamentu loiyetan gustu artzaiten dabena, obrazco gauzaric eguiteco gogerik euqui ez arren: gauza loiyac cantau, esan, edo gustuz enzuten dituzanac; eta norberagaz edo bestegaz escuca loiyac, edo gauza desonestuac danquezanac, edo enqui gura dituzanac.

I. Cein da zazpigarrena?

E. Iñori ecer ostu ez eitia.

I. Cer aguinduten da mandamentu onetan?

E. Ez quendu, ez euqui, ta ez gura izatia
besteren gauzaric, yaibiaren borondatez contra.

I. Noc eguiten dau pecatu mortala manda-
mentu onen contra?

E. Gauza oneetaric edocein eguiten dabenac,
edo beste moduren baten progimnari bere on-
dasunetan calte andiya eguiten deutsanac.

I. Eta progimnari bere ondasunetan, dan
moduan dala, calte eguiten deutsanac ce obli-
gaciño dauco?

E. Dauco obligaciño-estua guztiyen erres-
cata albait leen eguiteco.

I. Cein da zortzigarrena?

E. Iñori falso testimonioric ez crequitia, ta
guzurric ez esatia.

I. Cer aguindutén da mandamentu onetan?

E. Ez progimua gaitic juzgu charric arin
eguitia, eta bere faltac ez esan, ta ez enzutia.

I. Noc austen dau mandamentu au?

E. Errazoe andi bagaric juzgu deunguia
eguiten dabenac, creitua quendu, secretoa
aguertu edo guzurra esaten dabeledac.

I. Eta ce obligaciño dauco progimnari crei-
tua quentzaiten deutsanac esaten dabela bera
gaitic eguin eztaben pecaturen bat, edo eguin
badau bere, zabal ez dabilena; edo aurpeguira

bere saltac esarten deutsala?

E. Dauco obligaciōoa lengo moduan iminteko galdu eraguin deutsan creitua, edo estimaciōoa.

I. Cer aragozten da bederatzigarren, eta awargarren mandamentuan?

E. Aragnisco atseguiñen, eta iñoren ondasunen desio bide bacoac.

M. Esan eguzkiz Elessa Ama Santiaren mandamentuac.

*Elessa Ama Santiaren mandamentuac
dira bost.*

Lelengoa, Meza osoa entzutia Domeca, ta Jayetan.

Bigarren, urtian bein edolabere confesetia, edo leenago criyotzaco peligrurie badago, edo comulgauco bada.

Irugarrena Pascua erresurreciōocoetan comulguetia.

Laugarrena Elessa Ama Santiac aguinduten dabenian barau eguitia.

Bostgarrena Amarrenac, eta primiciyac Elessa Ama Santiac paguetia.

I. Cetaraco dira mandamentu oneec?

E. Jangoikoaren legueccoac obeto gordetako.

I. Eta lelengora, cein dan Meza onzutia, noritzuc dagoz obligaurie?

E. Uso errazoezcora eldu dirian cristiñau guztiyac.

I. Eta celan enzun biar da?

E. Atenciñoe, errespeto, eta debociñoe andiyagaz: Cristoren pasiño santuan, edo beste gauza onen baten pensetan dogula; edo debociñoz erregetan dogula.

I. Eta ce pecatu eguiten dau motibo, edo errazoe on bagaric Meza enzuten eztabenac, edo Meza guztiyan, edo zati andiyan atenciñoe baga dagoanac, edo Mezia uts eguiteco peligruan yarten danac?

E. Pecatu mortalak.

I. Eta bigarrenera, ta irugarrenera, ceintzue dirian confesetia, ta comulguetia nortzuc dagoz obligauric?

E. Uso errazoascoa dauqueen cristiñau guztiyac.

I. Eta deungaro confesetan, ta comulguetan dirianac gordetan dituez mandamentu orreec?

E. Ez, Jauna; eta confesiño, ta comuniño bacochian eguiten dituez pecatu mortal bi.

I. Eta ilteco peligruan confesore bagaric ecusten danac, cer egin biar dau?

E. Contriciñozco acto bat, confesetaco googoagaz.

I. Eta laugarrenera, cein dan barau eguitia, nortzuc dagoz obligauric?

E. Oguetabat urte cumplidu daudeenac.

I. Eta celan eguin biar da barau?

E. Egüerdiyan, eragotzi baco yanariyacaz, bazcari bacar bat eguiten dala.

I. Eta onetan faltau bagaric goshian ecer artu lei?

E. Bai, Jauna, artu ley onzabat leguez motibo arinenbat badago.

I. Eta ganbian cer artu lei?

E. Artu lei colaciñoan conciyenciya oneco gente artian usetan dana.

I. Eta motibo, edo errazoe on bagaric barau eguiten eztabenac ce pecatu eguiten dau?

E. Pecatu mortala.

I. Eta nortzuc dagoz obligauric vigiliya, ta barau egunetan oquelaric yan ez eiten; euren tan oquelia ta pesca gauzia nastian yator-dubaten yan ez eiten: eta arrauntzaric, ta esne gauzaric garizuman, bulda bagaric, yan ez eiten?

E. Uso errazoczcoa dauqueen guztiyae.

I. Eta ce pecatu eguiten daudee gordetan eztituezanac?

E. Pecatu mortala, orreetaricoren bat austen daudeen bacochian.

Misericordiyazco obrac dira amalau:

Zazpi espiritualac, edo arimacoac, eta beste
zazpi corporalac, edo gorputzeacoac.

Espiritualac dira oneec.

Lelengoa, eztaquianari iracañtia.

Bigarrena, biar dabenari conseju ona emoitia.

Irugarrena, erratuten dabena zucendutia.

Laugарrena, injuriyac parcatutia.

Bostgarrena, triste dagoana consoletia.

Seigarrena, progrmuaren faltac, ta argalta-
sunac paciyenciyatan eroatia.

Zazpigarrena, biciyac, ta ilac gaitic Jangoi-
coari erregututia.

Corporalac dira oneec.

Lelengoa, gaishoac bisitetia.

Bigarrena, gose danari yaten emoitia.

Irugarrena, egarri danari edaten emoitia.

Laugарrena, cautiboac errescatetia.

Bostgarrena, billosac yancitia.

Seigarrena, pobre bidestiyai ostattu emoitia.

Zazpigarrena, ilai lurra emoitia.

I. Cegaitic dereche misericordiyazcoac?

E. Justiciyac zor eztirialaco.

I. Nos obliguetan dandee pecatuaren beian?
E. Guizon yaquinen erechian necesidade andiyya dagoanian.

I. Eta cer alcancetan dau batec misericordi-yazco obra oneecaz, eta eguiten dituzan beste obra onacaz, nai aguinduae diriala, nai boroudatezcoac?

E. Jangoicoaren graciyan badago, merecietan dau arimaco graciya, eta ceruco gloriya gueiyagotutia; paguetan dituz bere pecatuen zorrac, eta alcancetan dituz Jangoicoaganic ondasun andiyac, alan bere ariman, cein bere gaucetan, conbenietan bayacaz.

I. Cegaitic diñozu Jangoicoaren graciyan badago?

E. Cegaitic pecatu mortalian batec eguiten dituzan obra onacaz ecin merecidu lei, ta ecin pagau lei pecatuen zorric; ta bai bacarric alcanzau leiz, edocelanbere, Jangoicoaganic mesederen batzuc.

Laugarren Partia, ceinetan espliquetan dirian artu biar dirian Sacramentuac.

Ecusi dogu celan daquizun cer sinistu, cer escatu, ta cer obrau biar dozun. Dacusgun orain celan daqnizun cer errecibidu biar dozun; cein dan azquenengoa.

Esan eguzuz Sacramentuac.

Elessa Ama Santiaren Sacramentuac dira zazpi: lelengo bostac dira biar biarrac izatez edo borondatez, ceintzuc baga ecin salban leiteque guizona echiten badituz despiecioz: beste biyac dira boron datezcoac.

Lelengoa, Bautismua,

Bigarrena, Confirmaciñoa.

Iugarrena, Penitenciya.

Laugarrena, Comuniñoa.

Bostgarrena, Estremadurciñoa.

Seigarrena, Ordia.

Zazpigarrena, Matrimoniñoa.

I. Ce ganza dira Sacramentuac?

E. Dira señale aguiri batzuc, Jesucristo gueure Jaunac eguin, ta imini cituzanac, euren mediyoz emoitako guri bere graciya, ta birtutiac.

I. Cer da graciya?

E. Da izaito Jangoicozko bat, ceinec eguiten daben guizona Jangoikoaren seme, ta Ceruco herederu.

I. Eta celan derecho graciya oneri?

E. Santificantia, edo santututuen dabena.

I. Eta bagoz onez ostian beste graciya modu batzuc?

E. Bai, Jauna, bagoz beste batzuc; ceintzuei

derechear graciya lagungarriyac, eta arimaco arguialdiyac, ceintzue bagaric ecin asi, ecin aurrera eroan, ta ecin acabau guiñaiquian salbaciñoraco gauzaric.

I. Eta oneec cer dira?

E. Jangoicoac, pecatuau yausi ez citeco, eta obra onac eguiteco emoiten deusczuan socoru edo laguntasun batzuc, celangoac dirian Sermoiac, egenplu onac, uste uste baco eriyotzaz; eta argui-aldi batzuc, ceintzncaz, Jangoicoac arguitutene dituzan gure entendimentuac; eta desio santi batzuc, ceintzucaz bizcortutene dituzan onaraco gure borondatiac.

I. Cér birtute emoiteu daudee Sacramentuac graciayagaz batera?

E. Principalenac dira iru, Teologalac, ta Jangoicozcoac.

I. Ceintzuc dira?

E. Fedia, Esperancia, ta Caridadia.

I. Cer da Fedia?

E. Ecusi eztoguna sinistutia Jangoicoac alan aguertu dabelaco.

I. Cer da Esperancia?

E. Esperetia Ceruco gloriya Jangoicoaren graciya, eta gueure obra onac diriala mediyo.

I. Cer da Caridadia?

E. Jangoicoac ametia gauza guztiyen ganian eta gueure progrmuac gueure burua leguez, euracaz eguiten dogula, eurac gueugaz eguin

daguiyen guraco guenquian legnez.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Bautismoa?

E. Quentzaiteco pecatu originala, ta beste, batiatuten danagan, aurquituten dan edocein.

I. Cer da pecatu originala?

E. Da araco pecatua, ceindegaz yayoten garian guztiyoc, eta yatorcun gneure lelengo gurasoetaric.

I. Nondi sartzaiten da Elessara?

E. Bantismu Santuti.

I. Eta bago Cerucie batiatu eztirianentzat.

E. Ez Janna.

I. Bada nora doaz batiatu bagarie ilten dirian seinchuac?

E. Linbora.

I. Eta ce pena dauquee lecu atan?

E. Eztauquee sentiduco penaric Infernucoac leguez: baya bai Jangoicoaren arpeguiya iños ecusi ecina.

I. Orlan pecatu andiya da seiñari bautismoa galerazotia?

E. Bai, Jauna, norberen errnz izan azquero.

I. Nortzue enqui daroe, bada, onetan errua?

E. Cerbaist eguiten dandecnac sortuta da goan seinchua galtzaiteco, eta bardin onetara eo conseju deungnia emoitzen daudeenae.

I. Celango pecatna da au?

E. Cerura guedar eguin daroan pecatua, eta

Jangoicoac aserre castigau daroiana.

I. Nortzuc guciyago euqui daroe onctan errua?

E. Yarten dirianac sabelian dauqueen seiña galtzaiteco peligruan.

I. Noe batiaatu lci seiña ilteco peligruan da-goanian?

E. Edoceince, ondo batiatuten yaquin az-quero.

I. Celan ondo batiatutene da?

E. Ezarten yacala seiñari ura, albaledi burrura, ta ezpabere gorputzeco zatiric andiye-nera, eta ura czartorduan esaten diriala, batia-tuteco adiyagaz, berba oneec: *Nic batiatuten zaitudaz Aitiaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren ucenian. Amen.*

I. Eta cer eguiñ biar da seiña yayoten bada il-echuriagaz, edo eceri eraguiten ezteutsala?

E. Batiaatu bada-ezpadan, ustelduta urten ezpadan, eztalaco ilic dagoanen seiñale ciertua mobimenturie ez eguitia: eta esaten da alangoan: *Bici bazara: Nic batiatuten zaitudaz Aitiaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren ucenian. Amen.* Eta bota ura berbacaz batera.

I. Eta cer eguingo da galtzaiten, edo bote-tan dan seiña bada denpora bacoa, ta guztiz chiquerra?

E. Batiaatu ardura baga, ura ezarten yacala berbacaz batera, leen esan dan moduan.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Confirmaciñocoa?

E. Confirmetaco, eta indartuteco Bautismu Santuan artu gnendnn sedian.

I. Eta uso-errazozcora eldi danac ce pecatu eguiten dau Sacramentu au pecatu mortalian artzaiten dabela?

E. Pecatu mortala.

I. Bada cer eguingo dau pecatu ez eguiteco!

E. Confesau ondo leenago.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Penitenciayacoa?

E. Batiatu azqueroco pecatuac parquetaco.

I. Ce pecatu dira orreec?

E. Mortalac, eta benialac bere bai.

I. Cer da pecatu mortala?

E. Da esatia, eguitia, pensetia, edo gura iza-tia cerbaist Jangoicoaren leguiaren contra gauza pisuzcoan.

I. Cegaitic derecho mortala?

E. Ilten dabelaco eguiten daberen arimia.

I. Celan ilten dau?

E. Graciaren bicitzia quenduta.

I. Eta nos artzaiten dogu Sacramentu Penitenciayacoa?

E. Ondo confesadu, ta ausoliciñoa artzaiten dogunian.

I. Eta ceinbat gauza biar dira ondo confesetaco?

E. Bost, Jauna.

I. Ceintzuc dira?

E. Lelengoa, esamina conciyenciyacoa eguitia.

Bigarrena, artzaitia damu eguiyazco bat Jangoicoa ofendidu dabelaco.

Irugarrena, cuquitia propositu firme bat pectoral guciyago ez eguiteco.

Laugarrena, Confesoriari bere pecatu guztiyac artez esatia

Bostgarrena, Confesoriacemoiten daben penitenciya cumpliyetako gogoa artzaitia.

I. Cer da esamiua conciyenciyacoa?

E. Leenondo confesau zanic, eta artian egundituzan pecatuac memoriyara ecartia.

I. Nondi eguiten da esaminia?

E. Jangoicoaren legueco Mandamentuetati, bost Elessacoetati, eta obra Misericordiyazcotati; kontua aterefan dabela bat ee mandamendu baco hian cetan uts eguin daben, obraz, berbaz, pensamentuz, edo desioz; beguiratuten dala norberen bicimodu, oficiyo, eta estaduko obligaciñotara bere: escatu azquero leenago Jangoicoari norberen pecatuac ezaututeco arguia.

I. Cein bat modutacoa da damua?

E. Bitacoa.

I. Ceinzuc dira?

E. Contriciñozcoa, edo amodiyozcoa: eta

Atriciñozcoa, edo bildurrezcoa.

I. Cer da Contriñozcoa dumua?

E. Da sentimentu, pena, edo damutasun eguiyazco bat, pecatariyac bere biyotzian artzaiten dabena, Jangoicoa ofendidu dabelaco izanicain ona: proposituagaz confesetaco, emendetaco, eta cunpliyetaco penitenciya.

I. Cer da atriciñozcoa dumua?

E. Da sentimentu, pena, edo damutasun eguiyazco bat pecatariyac bere biyotzian artzaiten dabena, Jangoicoa ofendidu dabelaco, edo infernuaren bildurrez, edo pecatuaren czaitasuna gaitic, edo graciya, eta gloriya galdu dabelaco; proposituagaz confesetaco, emendetaco, eta cunpliyetaco penitenciya.

I. Eta damu biyoetaric cein da onena?

E. Contriñozcoa.

I. Cegaitic?

E. Contriñozcoa amore garbiti datorrelaco, atriciñozcoa barriz, bildurreti: contriciñozcoa damuegaz, confesau baño leenago, parcatuten yacaz bateri pecatu mortalac, eta yarten da Jangoicoaren graciyan: bayan atriciñozco bacarragaz ez, confesiñoagaz baftera ezunga.

I. Eta damu biyoetaric cein euqui biar da ondo confesetaco?

E. Gueiyenac esaten daudee atriciñozcoa asco dala; bayan obeto eta seguruago da contriciñozcoa eroatia: eta au euquitiarran eguingo

dan confesetan danac.

I. Eta nos euqui biar da damua?

E. Confesoriac ausoluciñoa emon baño le-enago.

I. Cer da propositua?

E. Da gogo firmebat secula gueiyago Jan-goicoa pecatu mortalagaz ez ofendiyetaco.

I. Cer da aozco confesiñoa?

E. Da esatia Confesoriari pecatu mortal guztiyac, engaňu bagaric, ta guzur bagaric.

I. Eta pecatu mortalen bat confesatzagaric echiten dabenac, confesiño ona eguiten dau?

E. Echiten badau lotsaz, bildurrez, edo esa-mina faltaz ez Jauna; baya bai aiztuta echiten badau, edo bere erru bagaric.

I. Eta acordetan bayaco guero, cer eguin biar dau?

E. Urrengoa confesiñoan confesau.

I. Eta pecatu mortalen bat lotsaz confesau bagaric echi dabena salbau leiteque penitenciya eguin da?

E. Ez, Jauna, Santuac baño penitenciya gueiyago balegui bere, confesetan czpadau pecatua.

I. Eta bago confesoriac ausolbidu ecin leiyan pecaturic?

E. Ez, Jauna, bida guztiyentzaco topaucodau erremediyoa baco chac bere erriyan, Errormara-bagaric.

I. Eta ondo confesetan dira euren pecatuac gichituta, edo edertuta leguez esaten dituezanac?

E. Ez, Jauna, esan biar dirialaco datqueen gaistotasun guztiyagaz, eta conciyenciyac eracusten daben leguez.

I. Eta confesetan danac damu bagaric, propositu bagaric, edo penitenciya cumpliyetaco gogo bagaric confesiño ona eguiten dau?

E. Ez, Jauna; eguiten dau, bai, sacrilegiyozco pecatu mortal andi bat; eta barriro confessau biar dituz esan cituzan pecatu guztiyac, eguin eban sacrilegiyozcoagaz batera.

I. Eta nortzuc eguin daroez euren confesioac damu bagaric, eta propositu bagaric?

E. Ocasioñetaric apartetan eztirianac, eta emendiyoric eztauqneenac.

I. Eta damu eguiyazcoa, eta propositua artzaiteco cer eguin biar da?

E. Confesetara yoan baño leenago Jaungoi-coari escatu arren, lagundu daguiyola; gogora ecarri bere magestadiac eguiun deutsazan mesediac, edo bere pasiño, ta eriyotzia, edo bere ontasun parebacoa; eta biyótz biyotzeric ascotan esan acto contriciñozcoa.

I. Cer da penitenciya, edo satisfaciñoa?

E. Da paguetia pecatuac gaitic zor dan pena, cumpliyetan dala confesoriac emonico penitenciya.

I. Eta penitenciya cunpliyetan eztabenac eguiten dau confesiño ona?

E. Confesoriac emoiten deutsanian badauco cunpliyetaco gogoa, bai Jauna, baya confesoriac emoiten deutsanian ezpadanco cunpliyeta-co gogoric, ez Jauna: guero cunplidu arren bere.

I. Eta ee pecatu da penitenciya ez cumpliente, edo lar lutzatutia?

E. Pecatu mortala, Jauna, pisuzcoa bada penitenciya ori.

I. Eta pecatuac gaitic zor dan penia ecin pagau lei penitenciyagaz ezpada?

E. Bai, Jauna, paguetan da Jangoicoaren graciyan eguiten dirian obra on guztiyacaz bere, eta Indulgenciyac irabaciagaz.

I. Cer dira Indulgenciyac?

E. Dira graciya batzue, ceinen bitartez parcatuten dan, mundu onetan, edo Purgatoriyoan, pecatuac gaitic pagau biar dan penia.

I. Eta celan irabacico dira?

E. Eguiten diriala estadu graciyyazcoan, aguinduten dirian gauzac.

I. Eta Purgatoriyoa doazanac, pagau eztau-deelaco mundu onetan euren pecatuuen zorra gue socorridu guñaiz?

E. Bai, Jauna, gure pecatuuen zorra paguetaco eguiten doguzan obra onacaz euracaz, arimen oneraco eguiten badoguz.

I. Eta pecatu mortalian yausten dan guztiyan, biar dau batec bertati confesau parcatu daquiyontzat?

E. Ondo litzateque, baya eztago obligacionie.

I. Cer egnin biar dau bada?

E. Artu pecatu egun dabelaco contriciñozco damu eguiyazcoa, proposituagaz emendetaco, ta confesetaco Elessa Ama Santiac aguinduten dabenian.

I. Cer da pecatu veniala?

E. Da pecatu mortaleraco disposicioño bat.

I. Cegaitic derecho veniala?

E. Arin yausten dalaco berian guizona, eta arin parcatutene yacalaco.

I. Ceinbat gauza gaitic parcatutene yaeo?

E. Bederatzi gaitic.

I. Ceintzuc dira?

E. Lelengoa, Meza enzutia gaitic.

Bigarrena, comulguetia gaitic.

Irugarrena, Ni becatariyau esatia gaitic.

Laugarrena, Obispoaren bendiciñoa gaitic.

Bostgarrena, ur bedeincatua gaitic.

Seigarrena, ogui bedeincatua gaitic.

Zazpigarrena, Aita guria esatia gaitic.

Zortzigarrena, Sermoia enzutia gaitic.

Bederatzigarrena, bularra yoa gaitic, Jangoicoari parca escatutene yacala.

I. Cegaitic diñozu Jangoicoari parca escatut-

ten yacala?

E. Eracusteco artu biar dogula pecatu venialen damn santua, euren parcaciñoa gauza oneetati alcanzau gura badogu.

I. Eta pecatu venialac confesau biar dira?

E. Ondo da confesetia, baya eztago obligacioneric.

I. Eta pecatu venialac baño ezpadaucaz confesetara doianac. cer egnin biar dan damua, ta propositua segurututecoa?

E. Confesau, venialacaz batera, leenago confesauta daucan pecatu mortalen bat bere.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Comuniñocoa?

E. Biar dan leguez errecibidu azquero, izan dintzat gueure arimeen mantenimentua, eta graciya aci, ta gueyagotu deiguntzat.

I. Ceinbat gauza biar dira, bada, ondo comulguctaco?

E. Iru Jauna.

I. Ceinzuc dira?

E. Lelengoa, barau naturalian egotia.

Bigarrena, Jangoicoaren, graciyan egotia.

Irugarrena, cer errecibietan dan yaquitia.

I. Cer da barau naturala?

E. Gaberdiceo amabiyetario, eta comulgauartian ecerbere artu bagaric egotia.

I. Cer da Jangoicoaren graciyan egotia?

E. Pecatu mortal gntziyetario libre egotia.

I. Eta celan yarriko da graciyan comulgue-taco, pecatu mortalian aurquifuten dana?

E. Ondo confesauta, Janna.

I. Eta confesau azquero gogora bayatorco pecatu mortalen bat, cer egnin biar dau?

E. Barriro confesau, comulgan baño le-enago.

I. Cer artzaiten dozu comulguetan zaria-nian?

E. Jesu Cristo Jangoico, ta guizon eguiyaz-coa, cein dagoan bene-benefitan Sacramenta Santu Altaracoan.

J. Cer da Sacramentu Santu Altaracoa?

E. Ostiya consagrada, eta Caliz consagra-dua.

I. Nos iminten da Jesu Cristo ostiyan, eta Calizian?

E. Sacerdotiac consagraciñoco berbac esaten dituzanian.

I. Eta berba santuaec esan baño leenago cer dago Ostiyan, eta cer Calizian?

E. Ostiyan dago ogui puscabat, eta Calizian ardaor puscabat, ur tanga bategaz.

I. Eta consagraciñoco berbac esan azquero cer dago?

E. Ostiyan Jesu Cristoren gorputza, eta Calizian Jesu Cristoren odola.

I. Ostiya consagraduan bago gorputza baño beste gauzaric?

E. Bai Jauna, an dago Jesucristoren gorputzagaz batera bere odola, arimia, eta Jaungoicotatasuna; eta bardin Caliz consagradian Jesucristoren odolagaz batera dago bere gorputza, arimia, eta Jangoicotatasuna.

I. Consagraciono berbac esan azquero bago Ostiyan oguiric, edo Calizian ardaoric?

E. Ez Jauna, ezpada oguiyaren eta ardaoren irudiya, edo accidentiac; ceintzuc dirian usaiña, coloria, gustua, eta ganecoac.

I. Bicirie, ala ilie dago Jesucristo ostiya, eta Caliz consagradian?

E. Bicirie, Jauna, Cernan dagoan leguez, baya estalduta oguiyaren eta ardaoren irudiycasz, edo accidentiacaz.

I. Ostiya consagrada erdibituten edo apurtutu bida, erdibituten eta da Cristoren gorputza?

E. Ez, Jauna, bida ain osorio dago zati batian, cein bestian: ain osorio ostiya chiquiyan, cein andiyan; eta ostiyaren apurric chiquirreñian, cein ostiya osoan: dagoalaco Jesu Cristo guztiya, ostiya guztiyan, eta guztiya ostiyaren edo cein zatitan edo apurretan.

I. Pecatu mortalian comulguetan danac artzaiten dau Jesu Cristo?

E. Bai, Jauna, baya ez bere oneraco, ezpabere bere ealtian; eguiten dabelaco sacrilegio icaragarri bat, eta Judasen pecatua.

I. Eta biardan moduan comulguetan diria-

nac cer gueyago eguin biar daudee frutu an-
diyagoac alcancetaco?

E. Comulgau baño leenago pensau ondo nor
dan euren biyotzetara datorren Jaun andiya:
eguin fedeco, esperantzaco, eta caridadeco ac-
toac; artu humiltasun eta bildur santu andi-
yagaz; eta comulgau azquero esquer onac
emon mesede ain andiya gaitic, urten bagarie
bertati (Jndasec leguez) Elessaric canpora.

I. Eta cer eguin biar da esquer onac emoi-
teco?

E. Munduco ardurac, eta cer eguin guztiyac
aldebatera ichi, sensunac ta biyotza batu, ta
egon pensetan: *gnor etorri da nigana? gnor da*
Jesucristo? ota gnor nas ni? Escatu guero gura
dan gustiya, bada, ondo comulgau bagara, ez-
tago mesediac alcancetaco eta ederragoric.

I. Orlan ezta ondo comulgau ta bertati Alta-
rac bisitetia, Errosariyoa erregetzia, edo Con-
fesoriac emon deutsan penitenciya cumpliye-
tan egotia?

E. Ez, Jauna, bada orreec onac izan arren,
eztira orduan eguin biar dirianac: orduan egon
biar dau batec, ordu lauren baten guichiye-
nez, leen esan doguzan gauzac bore artian go-
goan darabiltzala.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Estrema-
unciñocoa?

E. Iru gauzataraco.

I. Ceintzuc dira?

E. Lelengoa, lengo bicitza gaistoaren errastu, ta ondaquinac qmentzaiteco.

Bigarrena, arimiari indarra emoiteco Demoniñoaren tentaciñoen contra.

Irugarrena, gorputzari osasuna emoiteco, arimiaren calteraco izango ezpada.

I. Eta uso-errazoezcora eldu cirianac gaisho peligruzcoagaz, dagozanian, ete danqueen Sacramentu Santuan artzaiteco obligaciñoric?

E. Bai, Jauna, eta pecatu mortala eguiten daudee aleguinez artzaiten ezpadaudee, edo pecatu mortalian eguiten badaudee.

I. Bada cer eguingo dan pecatu mortalian dagoanac ondo artzaiteco?

E. Confesau leenago, ta ecin confesau bada, artu contriciñozco damua.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Ordiacoa?

E. Consagretaco, ta ordenduteco Elessaco ministro dignoac celan dirian Sacerdotiac, Diaconuac, eta bestiac.

I. Eta Elessaco ministroai, besteen artian bere, Sacerdotiai zor yaqne errespeto andiyoagoa?

E. Bai Jauna.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Matrimoniocua?

E. Ezconduteco, ta ezcondei graciya emoiteco, ceinegaz alcarregaz baquian vici ditezan,

eta Cerureco aci daguiyezan seme alabac.

I. Eta Sacramentu Santu au artzaiteco graciyan egon biar daudee ezcondutene dirianac?

E. Bai, Jauna, pecatu mortalaren beian.

I. Eta graciyan eztagozanac celan prestauco dira ezconduteco?

E. Ondo confesauta.

Pecatu capitalac dira zarpi.

Lelengoa, Soberbiya.

Bigarrena, Avariciya.

Irugarrena, Luxuriya.

Laugarraga, Iria edo aserracunsia.

Bostgarrena, Guleriya.

Seigarrena, Enbidiya.

Zazpigarrena, Naguitasuna.

I. Cegaitic emoten dentseesu pecatu onei pecatu capitalen ucena, guciyenian pecatu mortalen ucena emoten bayatee?

E. Emoten yaque pecatu capitalen ucena, dirialaco beste pecatu en buru, iturri ta sustraiyac leguez: eta pecatu mortalen ucena echartorkez ain ondo, bida ascotan venialac baño eztira.

I. Nos dira mortalac?

E. Jangoicoaren, eta proginuaren contra dirianian.

I. Nos dira caridadiaren contra?

E. Eurac gaitic austen danian Jangoicoaren,

edo Elessiaren mandamenturen bat gauza pi-suzcoan.

I. Cer da Soberbiya.

E. Bestiac baño gueiyago izateco gurari lar-reguibat.

I. Cer da Avariciya?

E. Da ondasunen gurari larregui bat.

I. Cer da Luxuriya.

E. Gorputzeco gustu loiyen gurari char bat.

I. Cer da Iria edo Aserracunsia?

E. Benguetaco gurari cital bat.

I. Cer da Guleriya?

E. Yateco, ta edateco gurari larregui bat.

I. Cer da Enbidiya?

E. Besten ona ecusi eeina.

I. Cer da Naguitasuna?

E. Gauza oneraco yausitasun, edo atzora-cuntza bat.

*Zazpi pecatu oneen contra dagoz zazpi
virtute.*

Soverbiyaren contra, humildadia.

Avariciyaren contra, prestutasuna.

Luxuriyaren contra, castidadia.

Aserracunciaren contra, paciyenciya.

Guleriyaren contra, yan edanian beguiratua izaitia.

Enbidiyaren contra, caridadia.

Naguitasunaren contra, bizcortasuna.

*Arimiaren arerriyoac, ceintzuc ganic iñes egun
biar dogun dira iru.*

Lelengoa, Mundua.

Bigarrena, Demoniñoa.

Irugarrena, Araguiya,

I. Nor da Mundua?

E. Guizon mundu zaliac, ta gaistcac.

I. Nor da Demoniñoa?

E. Da Jangoicoac Ceruan egun eban Angue-rubat, cein yaigui zalaco, beste ascogaz batera, bere Magestadiaren contra, bota ebana Infernura bere lagunacaz batera, ceintzuei emoitzen deutsegu Demoniñoen ucena.

I. Nor da Aragniya?

E. Da gneure gorputza bera, bere gurari deungacaz.

I. Celan vencidu, ta iñes eguiten da mundua ganic?

E. Bere andiqueriyai, ta vanidadiai yaramon ezagaz.

I. Celan vencidu, ta iñes eguiten da Demoniñoa ganic?

E. Oraciñoagaz, ta humildadiagaz,

I. Celan vencidu, ta iñes eguiten, da aragniya ganic?

E. Oneganic iñes eguiten da, ta au venciye-tan da gorputza neque pian erabiliyagaz, bere gustuac ucatuagaz, ta barau eguinagaz. An

da areriyoric andiyena, cegaitic ece ecin gueuganic bota guiñai araguiya; mundua ta Demoniñoa bai.

Virtute Teologalac dira iru.

Lelengoa, Fedia.

Bigarrena, Esperanzia.

Irugarrena, Caridadia.

I. Eta celan eztogu utsic eguingo iru birtute oneec aetoac eguiteco daucagun obligaciñoan?

E. Debociñoz, ta sarri erregetan dogula (edocein Cristiñauc eguin biar leuquian leguez) *Credoa, ta Aitaguria*: eta biyotzeric esaten dogula *Neure Jesu Cristo Jauna*.

Virtute Cardinalac dira lau.

Lelengoa, Prudenciya.

Bigarrena, Justiciya.

Irugarrena, Fortalecia, edo Sendotasuna.

• Laugarrena, Tenplancia, edo yanedianian begiratua izatia.

Gorputzeco Cenzunac dira bost.

Lelengoa, Beguiyacaz ecustia.

Bigarrena, Belarriyacaz enzutia.

Irugarrena, Aoagaz gnstu artzaitia.

Laugarrena, Surracaz usain eguitia.

Bostgarrena, Escuacaz ucututia.

I. Cetaraco emon euscuzan Jangoicoac cen-

zunac, eta gorputzeco alde guztiyac?

E. Guztiyacaz, ta gauza guztiyetan bera serbiyetaco.

Arimaco Potenciayac dira iru.

Memoriya, Entendimentua, eta Borondatia.

I. Cetaraco emon euscun Jangoicoac Memoriya?

E. Bera, ta bere mesediac gogora ecarteco.

I. Cetaraco emon euscun Entendimentua?

E. Ezagututeco gueure Jauna, eta bera goigoan erabilteco.

I. Cetaraco emon euscun Borondatia?

E. Bera ametaco ontasunie andiyena leguez, eta bera gaitic proginua.

I. Eta cer da gueure arimia, ceinenac dirian potenciya oneec?

E. Da Espiritu bat, iñoz bere ilgo eztana, cein eguin eban ecebere eceric Jangoicoac bere antzera ta irudira.

Espiritu Santuaren Doiac dira zazpi.

Lelengoa, Yaquituriyaco Doia.

Bigarrena, Entendimentuko Doia.

Irugarrena, Consejuko Doia.

Laugarrena, Cienciyaco Doia.

Bostgarrena, Fortalezako Doia.

Seigarrena, Piedadeko Doia.

Zazpigarrena, Jangoicoaren bildurraren Doia

Espiritu Santuaren Frutuac dira amabi.

Lelengoia, Caridadia.

Bigarrena, Baquia.

Irugarrena, Biotzeco anditasuna.

Laugarrena, Benignidadia, edo erruquitasuna.

Bostgarrena, Fedia.

Seigarrena, Continenciya.

Zazpigarrena, Arimaco poza.

Zortzigarrena, Paciyenciya.

Bederatzigarrena, Ontasuna.

Amargarrena, Mansotasuna.

Amacagarrena, Modu ona.

Amabigarrena, Castidadia.

*Bienaventuranzac, edo Zoriyontasunac
dira zortzi.*

1. Zoriyonecoac biyotzeti pobre dirianac, bada curena izango da Cercuco Erreinua.

2. Zoriyonecoac mansoac, bada curac izango dira lurraren yaube.

3. Zoriyonecoac negar eguiten dawdeenac, bada curac izango dira poztuac.

4. Zoriyonecoac onaren gose ta egarri dirianac, bada curac asiaec izango dira.

5. Zoriyonecoac erruquiyorrac, bada eurentzaco bere erruquiya izango da.

6. Zoriyonecoac biyotz garbicoac, bada eu-

rac ecusico daudee Jangoicoa.

7. Zoriyonecoac baquetsuac, bada eurei emongo yaque Jangoicoaren semeen ucena.

8. Zoriyonecoac onac izanagaitic persecuciñoia daruenac, bada eurenua izango da Ceruetaco Erreinua.

I. Cer esan dogu orain?

E. Zortzi Bienaventuranza, edo Zoriyontasunac.

I. Ce ganza dira Zoriyontasun oneec?

E. Dira Espiritu Santuaren virtuteetaric, eta doietaric datozañ obraric onenac.

I. Nortzue dira biyotzeti pobriac?

E. Eztaudeenac gura munduko onreric, ez aberaztasunic, ezta laburrenic bere: edo beintzat curetan biyotza isini eztandeenac.

I. Nortzue dira mansoac?

E. Aserreric artzaiten eztaquiyenac, ezta bere apurric bere.

I. Celan izango dira luraren yaube?

E. Euren buruen yaube izanda.

I. Nortzue dira negar eguiten daudeenac?

E. Atseguinic laburrenac bere echiten dituzzanac.

I. Nortzue dira onaren gose, ta egarri dirianac?

E. Aleguinaz ecetan bere utsic eguin gura ez leuqueenac.

I. Nortzuc dira eri uquiyorrac?

E. Iñori bere, on baño besteric, egun gura eztentseenac.

I. Nortzuc dira biyotz garbicoac?

E. Euren gurari charrai ucatuten deutseenac.

I. Nortzuc dira baquetsuac?

E. Euren buruai, ta besteenai baque ona emon daroyoenac.

I. Norzuc dira onac izanagaitic persecuciñoia daruuenac?

E. Gauza on guztiyetan sendo ta firme dagozanac, perseguiduac izan arren.

I. Cegaitic dereche onei zoriyontasunac?

E. Euretan dagoalaco bicitza onetan zoriyoncoac izatia, eta Ceruaren esperanza manetacoa.

I. Ceinbat dira gnizonaren acabuco gauzac?

E. Lau Jauna.

I. Ceintzuc dira?

E. Eriyotzia, Judieyoa, Infernua, eta Gloriya

I. Cer da Gloriya?

E. Da estadu, edo bicimodu bat alde guztiyetati egun eguna, ceinetan dagozan on guztiyac gachie bapere bagaric : Infernuan gach guztiyac onic bapere bagaric aurquitutén dirian leguez.

I. Eta Infernuti librau, eta Gloriya alcanzetaco cer egun biar da?

E. Mandamentuac gorde.

I. Eta bagoz bideren batzuc maundamentuac errazago gordetaco?

E. Bai Jauna.

I. Ceintzue dira?

E. Sarri Confesetia, ta Comulguetia; goshian eguneco obra guztiyac Jangoicoari opatutia; egunian egunian mez-enzutia; Ama Virginiarri Errosariyoa erreccetia; liburu debotoetan irakurtia oraciño mentala; gaubian gaubian conciyenciya esaminetia; eta guztiya baten esatiarren, Confesore yaquitun, virtute andico, ta ondo beguiratu bat artu, ta gauza guztiyetan bere esanera egotia.

M. Ondo diñozu zuc ori, bada Jangoicoa serbidu, ta vicitza onian iranteko laguntasun andiya da Confesore on bat euquitia. Eguizuz, bada, zuc bere aleguin guztiyac topetaco, SAN FRANCISCO SÁLESEC, eta Santa TERESA diñueen leguez, ascoren artian oneen bat; eta Confesoria izango yatzu Angueru bat leguez, ceinco mandamentu Santuen bideti eroango zaituzan Ceruco Gloriya gozetara eltzaitartian.

M. Jangoicoac guztiyoc ara eroan gaguiza-la. Amen.

CONFESIÑO GENERALA.

Ni pecatariyau confesetan mayao Jangoico guztiz pode-
rosoari, Santa Mariva beti Virginari, San Miguel Arcan-
geluari, San Juan Bautistiari, San Pedro, ta San Paulo
Apostoluai, Santu guztiyai, ta ceuri neure Aita espiritua-
la, egun dodala pecatu pensamentuagaz, berbiagaz, ta
obriagaz: neure erruz, neure erruz, nuere erru andiz: or-
regaitic erregututene deutsat Santa Mariya beti Virginari,
San Miguel Arcangeluari, San Juan Bautistiari, San Pe-
dro, ta San Paulo Apostoluai, Santu guztiyai, ta ceuri
neure Aita espirituala, erregutu daguiyozula nigaitic gueu-
re Jaun eta Jangoicoari. Amen.

ACTO CONTRICIÑOZCOA.

Neure Jesu Cristo Jauna, Jangoico ta guizon eguiyazcoa,
neure Criyadoria, ta Erredentoria; zugan sinistutendot,
zugan esperetandot, zu ametan zaitudaz gauza guztiyen ga-
nian; zu izanic ain ona, ofendidu zaitudazalaco damu dot
Jauna, damu dot neure bivotz guztiere zure Magestadia ofen-
didua; eta iminten dot propositu firmebat, ceure graciayaz
batera, ez gueiyago ofendiyetaco eta apartetaco ofendidu
ciñaidazan ocasmo guztiyetaric; neure pecatuac confesetaco
ta cumpliyelako emoitien yatan penitenciya. Ofreciyetan deut-
sudaz, Jauna, neure bicitzia, obrac eta trabajuac neure peca-
tuac pagureco; eta confiyetan dot ceure ontasun eta miseri-
cordiya cabubacoagan parcatuko deustazuzala ceure odol
gutziz preciosoa gaitic, ta ceure pasiño ta eriotziagaitic, eta
emongo deustazula graciya emendetaco, eta irauteco ceu-
re serbiciyo Santuan neure bicitzia emoitartian. Amen.

Fedeco, Esperanzaco, eta Caridadeco Actoac.

Sinistuten dot Aita Jangoicoagan, sinistuten dot Seme
Jangoicoagan, sinistuten dot Espiritu Santu Jangoicoagan,
sinistuten dot Jangoico bacar bat iru personetan.

Sinistuten dot Trinidadeko bigarren personia Ama Virginaren Sabel guztiz garbiyan Espiritu Santuaren graciayaz guizon egun zala, eta gu salbatzen yayo zala, curtziari il, biztu, ta cerura igon ebala; eta Judiciyoko egunian etorrako dala hiciyac eta ilac juzguetan; emoitako onai betiko gloriya, eta deungai betiko Infernua; Sinistuten dot Santissimo Sacramento Altaracoan dagoala Jesu Cristo gueure Jauna Jangoico, ta gizon eguiyazoa. Ceruan dagoan berbera; eta sinistuten dot Elessa Ama Santiac sinistuten eta iracasten daben guxiya; eta fede onetan beti bici, eta il gura dot.

Esperetan dot Aita Janguicoagan, Esperetan dot Seme Jangoicoagan, Esperetan dot Espiritu Santu Jangoicoagan; Esperetan dot neure Jangoicoak pareatuco deustazala neure pecatu guziyac, eta emongo deustala Ceruco gloriya, eta mundu onetan ara elzaiteko biar dodazan graciya ta laguntasun guziyac, bere misericordiya cabubacoagaitic, Jesu Cristo gueure Jaunaren merccimentuac gaitic, eta bere graciagaz eguiten dodazan obra onagaitic.

Ametan dot Aita Jangaihoa, ametan dot Seme Jangoicoa, ametan dot Espiritu Santu Jangoicoa, ametan dot neure Jangoicoa neure biyolz guztiti, eta gauza guziyac baño gueiyago, dalaco bera guztiz ona, ta amorosoa; eta bere amorearren ametan dot neure proginua neure burnua leguez. Amen.

Goshian oeric yaigui, ta bertati Jangoicoari fede bici bategaz beguiratu, ur bedeineatua arlu, curtze Santaren egun, eta egun ataco obrac opatuteco.

ORACIÑOA.

Esquer andiyac eta alabanzac, emoitzen deutsudaz, [neure Jangoicoa, ecereceti criyadu nozulaco, Cristiñau egun, eta Jesu Cristoren odol preciosoagaz erredimendu nozulaco

orain artian gorde nozulaco, eta orain guiño ceure escu
santuetaric artu dodazan mesede guztiyac gaitic.

Aita guria, ta Ave Mariya.

Opa deutsudaz, Jauna, ceure gloriyaric andiyeneraco-gaurco neure pensamentu, berha, neque, ta obra guzti, yac, neure Jesus onaren odol, ta merecimentuacaz batera.

Aita guria, ta Ave Mariya.

Jauna, neure pecatu guztiyen damua daucat, ceu gauza guztiyen ganean ametan zaítudazalaco; vorondate sendo bategaz, ceure graciya lagun dodala, ceu ofendidu baño leenago neure bicitzia galtzaiteco. Baita artzaiten dot gozoa irabazteco gaur dirian Indulgenciya guztiyac neure pecatnen satisfaciñoraco, ta Purgatoriyoco arimen onerako: eta orretaraco opabere deutsudaz gaurco neure neque, biar, atsasibar, ta pena guztiyac: eta obeto artuan izan dituztan, ofreciyetan deutsudaz Ama Virginianaren escuetati, ceineri esquetan deutsadan bere concepcio garbiya gaitic, ta bere doloriac gaitic, gorde naguiala gaur, da beti gach guztiyetaric, bein bere ceure graciya galdu eztaguidantzat. Amen.

Iru Ave Mariya Ama Virginiarri.

Angueru Guardacoari Oraciñoa.

Neure Angueru Guardaco maitia: gorde nagizu gaurco neure pausu, berba, ta gauza guztiyean, bencidu ez nagui-yenzat neure areriyoae; egun eztaguidan ceure surrian neure Jangoicoaren contrako gauzaric: neure oraciño, ta obra onak eroan eguzkiz Jangoicoaren Tronuaren aurrera, ta alcanzadu eguidazu guero eriyotza on bat. Amen.

Aitaguria, ta Ave Mariya.

San Joseperi Oraciñoa.

Neure Aita San Josepe bedeincatu gozoa; Ama Virginia-

ren Esposo eguiyazeoa; Jesus guztiz gozoaren Aita ordecoa; eta eriyotzaco orduan dagozan tristien anparu segurua: nic arizaiten zaitudaz egun onetan neure bitarteko ta defensoretzat; lagun eguidazu, bada, gaureo ta neure bici guztico obra, berba, ta gauza guztiyetan, dirianac izan ditezantzat neure Jangoicoaren gloriyarako; eta neure eriyotzaco ordu estuan lagundi eguidazu, eta eroan eguztu neure arimia Jangoicoa alabean eeugaz batera, betico gloriyan. Amen. *Aita guria, ta Ave Mariya.*

Gaubion, mian sartu baño leenago ur bedeineatua artu curtze Santuaren eguin, eta guero esango dirian.

ORACIÑOAC.

Neure Jangoicoa, emon eguidazn graciya gau au ceu ofendidu bagarie igaroiteco, eta gorde naguizu gauza deunga guztiyetaric. Amen Jesus Mariya, ta Josepe.

Aita guria, ta Ave Mariya.

Ama Virginiori Oraciñoa.

¡O Virginia Mariya, Jangoicoaren Ama maitia, eta pecatarri triste guztiyen misericordiyazco Ama! lagundi eguidazu gau onetan, librau naguizu gach guztiyetaric, eta ez naguizu desaparau neure eriyotzaco orduan.

Iru Ave Mariya.

Angueru Guardacoari Oraciñoa.

Neure An̄ueru Guardacoa, lagundi eguidazu, eta gau onetan gorde naguizu: JESUS, MARIYA, JOSEPE socorridu naguizue. Jangoicoe emon daigula bere graciya, eta guero betico gloriya. Amen. *Aita guria, ta Ave Mariya.*

Maya bedeineatuteco modua.

Aitiaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren ucenian. Amen.

Neure Jauna eta Jangoicoa, gueure esperancia dago ceugan, eta zue emotien dozu bere denporan yateco biar doguna. Ceure esku zabaldu, ta guztiyoc bendiciñoz betetan gozuz.

Aita guria, ta Ave Mariya: eta guero esango da.

Ondasun guztiyen emilia, eta gueure Jauna; ceure esuctuaric artu eta yan biar dogun guztiya zue bedeincatu egiztu, Jesu Cristo ceure Sémia gaitic: Aitiac, eta Semiac, eta Espiritu Santuac guztiyoc bedeincatu gaguiyezala, eta bere gloriyaco Maira betico eroan gaguiyezala. Amen.

Yan azquera gracieyac emiteco.

Aitiaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren ucranian. Amen.

Esquerrac, eta alabanzac emotien deutsuguz, Jauna, orain ta beti egin deusczuzan mesede guztiyac gaitic.

Ceuganic gueure ganera etorri dan bendeciño, ta mese-de onegaitic mundu guztiyac alabauzagrizala. Amen.

Aita guria, ta Ave Mariya.

Gueure onguin guztiyai, Jauna, pagan eguiyezu ceure ucen santua gaitic; eta arima siyel guztiyac eroan eguiyezu ceu alabelan. Amen.

Aita guria, ta Ave Mariya.

Arima siyel guztiyai Jangoicoare emon daguiyoela betico descansun, ta gueuri emon daigula bere graciya, ta haquia.

Emen batu guitzuzan Jaunac, batu gaguiziala guztiyoc Ceruco gloriyan. Amen.

Ave Mariyetakoac.

Y. Angueruac barri onac Ama Virginiarri emon eutsazan,

- R. Eta Espiritu Santuaren graciayaz Jangoicoaren Semi.
bere sabelian sortu zan. *Ave Marija.*
- V. Arremen Jaunaren esclabia.
- R. Eguin bidi nigan zuc esan dozuna. *Ave Marija.*
- V. Jangoicoaren Semia guizon eguin zan.
- R. Eta gure artian bici izan zan. *Ave Marija.*
- V. Jangoicoaren Ama Santia erregutu eguizu gu gaitic.
- n. Cristoren promeseen digno izan gaitezan.

ORACIÑOA.

Emon eiguzu arren, Jauna, gueure arimetan ceure graciya, Angueruac barri onac ecarri, ta Cristo ceure Semia-ren Guizon eguitia ezagutu dogunoc, bere Pasiõe ta Curtzia gaitic, betico gloriyara eroanac izan gaitezan. Amen.

Mezu crasoteko modua.

Sac. In nomine Patris et Filii et Spiritus Santi Amen.
Introibo ad Altare Dei.

R. Ad Deum qui laetificat juventutem meam.

S. Judica me Deus, et discerne causam meam de gente non sancta, ab homine iniquo et doloso erue me.

R. Quia tu es Deus fortitudo mea: quare me repulisti, et quare tristis incedo dum affligit me inimicus.

S. Emitte lucem tuam, et veritatem tuam, ipsa me deduxerunt, et adduxerunt in montem sanctum tuum et in tabernacula tua.

R. Et introibo ad Altari Dei, ad Deum qui laetificat juventutem meam.

S. Confitabor tibi in cithara, Deus, Deus meus, quare tristis es anima mea, et quare conturbas me.

R. Spera in Deo, quoniam adhuc confitebor illi: salutare vultus mei, et Deus meus.

S. Gloria Patri, et Filio, et Spiritui Sancto.

R. Sicut erat in principio, et nunc, et semper, et in secula seculorum. Amen.



S. Introibo ad altare Dei.

R. Ad Deum qui beatificat juventutem meam.

S. Adjutorium nostrum in nomine Domini.

R. Qui fecit Caelum, et terram.

S. Confiteor Deo Omnipotenti etc. et vos fratres, orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

R. Misereatur tui Omnipotens Deus, et dimissis peccatis tuis, perducat te ad vitam aeternam.

S. Amen.

R. Confiteor Deo Omnipotenti, Beatae Mariæ semper Virgini, Beato Michaeli Archangelo, Beato Joanni Baptiste Sanctis Apostolis Petro, et Paulo, omnibus Sanctis et tibi Pater: quia pecavi nimis cogitatione, verbo, et opere, mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa. Ideo precor beatam Mariam semper Virginem, beatum Michaelem Archangelem, beatum Joannem Baptistam, Sanctos Apostulos Petrum, et Paulum, omnes Sanctos, et te Pater orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

S. Misereatur vestri Omnipotens Deus, et dimisis peccatis vestris perducat vos ad vitam aeternam. R. Amen.

S. Indulgentiam, absolutionem et remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis Omnipotens, et misericors Dominus. R. Amen.

S. Deus tu conversus vivificabis nos.

R. Et plebs tua habbitur in te.

S. Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam.

R. Et salutare tuum da nobis.

S. Domine exaudi orationem meam.

R. Et clamor meus ad te veniat.

S. Dominus vobiscum. R. Et cum spiritu tuo.

S. Oremus etc.

S. Kyrie eleyson. R. Kyrie eleyson.

S. Kyrie eleyson. R. Christe eleyson.

S. Christe eleyson. R. Christe eleyson.

S. Kyrie eleyson. R. Kyrie eleyson.

S. Kyrie eleyson.

S. Dominus vobiscum. R. Et cum spiritu tuo.
S. Per omnia sœcula sœculorum. R. Amen.

Epistolia acabau ta. R. Deo gratias.

S. Dominus vobiscum. R. Et cum spiritu tuo.
S. Sequentia Sancti Evangelii secundum etc.
R. Gloria tibi, Domine.

Evangelioa acabau ta. R. Laus tibi, Chiste.

S. Orate fratres etc.

R. Suscipiat Dominus sacrificium de manibus tuis, ad laudem, et gloriam nominis sui, ad utilitatem quoque nostram, totiusque Ecclesie sume sanctæ. S. Amen.


Prefaciyoa esaten dñian.

S. Per omnia sœcula sœculorum. R. Amen.
S. Dominus vobiscum. R. Et cum spiritu tuo.
S. Sursum corda. R. Habemus ad Dominum.
S. Gratias agamus Domino Deo nostro.
R. Dignum et justum est.

Pater nosterra esun arquero.

S. Et ne nos inducas in temptationen.
R. Sed libera nos à malo.
S. Pax Domini sit semper vobiscum.
R. Et cum spiritu tuo.
S. Ite Missa est, *edo,* Benedicamus Domino.
R. Deo gratias.
S. Requiescant in pace. R. Amen.
S. Pater, et Filius, et Spiritus Sanctus. R. Amen.
S. Dominus vobiscum. R. Et cum spiritu tuo.
S. Sequentia Sancti Evangelii secundum etc.
R. Gloria tibi Domine.
Evangelioa acabau ta R. Deo gratias.

LAUS DEO.



Pluto

C -